

LEHENENGO ARIKETA. (5 puntu)

Ariketa honetan gai baten inguruko 5 iritzi (1-5) dituzu alde batetik, eta iritziak laburtzen dituzten (A-H) esaldiak bestetik. Zuk taulan parekatu behar dituzu. 0 zenbakia adibidea da eta bi esaldi sobera daude.

Gero eta neurri txikiagoko arropa saltzen dute dendek, argaldu behar al dugu?

0. Ainara Bedmar – Neurri handiko arropa-dendako saltzailea

Galderaren erantzuna argia da: ez, ez dugu argaldu beharrik. Egin beharko luketena bai dendek, bai fabrikatzaileek, neurriak zenbaketa errealetara egokitzea litzateke. Hau da, 42ko batek 42 neurrikoa izan beharko luke eta ez 38koa. Hainbat eta hainbat dendatan horrelako jokabidea baitute arroparen neurriarekin. Izan ere, guk 40tik 80ra bitarteko neurriko arropa saltzen dugu, eta etortzen zaizkigu bezeroak 42 neurriko prakak erostera, gainontzeko dendetan horrelakoak topatzen ez dituztelako. Hori ez da normala. (...)

1. Oihane Ibarrola – Modeloa eta Ingeniaritza Kimikoko ikaslea

Dendetan arropa neurri gero eta txikiagoak daudela? Eta zer gertatzen da argaltzeko dauden hainbat eta hainbat formula magikorekin? Ez al da hori txarragoa? Eta nortzuk dira horren errudunak? Ez modak, ez modeloak ezta diseinatzaileak ere, ez al da akaso gizartea izango? Ez dut uste neurriak gero eta txikiagoak direnik, baizik eta neurriak txikiagotu egiten dituztela. Hau da, lehengo 38koa, gaur egun 36koa da. Dena den, dendetan neurri guztietako arropa dago, S batetik XL batera. Beraz, arropagatik ez da zertan argaldu. Egia da edertasun kanonak denboraren poderioz aldatuz doazela. Bakoitzak bere gorputzarekin pozik egon beharko luke, argal izan zein lodia izan. Are gehiago, askotan argaltasunak edertasuna dakarrenik egiaztatzerik ez dagoenean. (...)

2. Pedro Ramos – Mediku nutrizionista

Tamalez, gizartearen talde handi batek, edertasun ezaugarriak direla eta, elikadurarekin menpekotasun handia du. Horrekin esan nahi dut egungo edertasun ereduak eragina duela gugan, baita gure elikatze ohituretan ere; batik bat, urteko sasoi batzuetan, non elikadura aldatzen dugun edertasun kanon horietara hurbiltzeko. Elikadura orekatu batek, hau da, Osasunerako Mundu Erakundeak aholkatzen duen elikaduraren piramidea jarraitzeak, pisu orekatu eta osasungarria ekartzeaz gain, edertasuna eta osasuna ere ekartzen ditu. Eta ez alderantziz, egun egiten den bezala. (...)

3. María Clé Leal – Diseinatzaile berria

Ez dut uste argaldu behar dugunik, forma bakoitzak bere neurri propioak erabiltzen ditu, nahiz eta zenbait dendak ohikoa baino txikiagoak egiten dituzten. Guk, Patricia nire kideak eta biok, “normaltzat” hartzen ditugun neurriekin lan egiten dugu. Nire neurrikoa den zerbait probatu eta sartzen ez bazait, ni naiz lehena kexatzen. Guk 38 eta 42ko neurrien arteko arropa egiten dugu; denbora gutxi daramagu lanbide honetan eta, oraingoz, ezin diogu gehiagori heldu. Baina enkarguz 36 zein 46ko neurriak eskatu dizkigute. (...)

4. Ruben Mendiola – Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendaria. Eusko Jaurlaritza

Dendetan gero eta neurri txikiagoko arropak ikusten direla egia bada, jendeak hori eskatzen duelako izango da, dendek ez baitute saltzen eskatzen ez dena. Baina hori arazo sakonago baten azaleko adierazpena baino ez da: nik uste dut arazoa edertasun ereduetan datzala. Moda-pasareletan eta publizitatean, modelo argalak, argalegiak esango genuke, ikusten ditugu eta horiek eredu bihurtzen dira, batez ere, eta nabariago, emakumezkoentzat. Ez da txantxetako kontua. Harriduraz ikusten dugu publizitateak gorputzaren edertasun ereduetan duen eraginaren indarra. (...)

5. Juan Medrano – Adimen Osasuneko Zentroko psikiatra

Giza baloreak eta irizpideak garaiz garai aldakorrek dira erabat. Duela hamarkada batzuk, jana eskasa zenean, pertsona lodi batek osasuna, arrakasta edo ongizatea isla zitzakeen, haren gorputza

elikadura on baten erakusleioa baitzen. Gaur egun, ordea, jakina da gehiegizko elikadurak gehiegizko pisua ekar dezakeela eta, horrekin batera, bestelako gaixotasun larriak, hala nola, kantzerra edo arazo kardiobaskularrak. Horregatik, lehen osasunarekin parekatzen zen gizen egotea; egun, berriz, kaltegarritzat hartzen da.

Era berean, osasun irizpideen aldaketekin batera, balore estetikoaren aldaketa ere etorri da. Gaur egungo estetika ezaugarriek emakume argalei mesede egiten dietela argi dago, baita gizonezkoei ere. Hala ere, emakumeek presionatuago daude (...)

Josune Vélez de Mendizabal – IVAP

Esaldiak

- A. Dendetan arroparen benetako neurria eskaini beharko lukete.
- B. Gaur egun argal egoteak, beste garai batean ez bezala, estimu handia du.
- C. Gaur egun edertasunaren ereduak agintzen du gure elikaduran.
- D. Gorputz bakoitzak, argaltzen ibili gabe ere, badu zenbait dendatan bere neurriko arropa.
- E. Gure elikatzeko ohiturak aldarazi du arroparen neurria.
- F. Jendearen mentalitatearen arabera aldatu da dendetako eskaintza ere.
- G. Moda eta publizitatearen eragina uste baino txikiagoa da.
- H. Neurri guztietako arropak badaude, gizartearen eraginez arroparen neurria jaitsi bada ere.

Iritzia	0	1	2	3	4	5
Esaldia	A					

BIGARREN ARIKETA. (5 puntu)

Ondoren, *Berría* egunkariko artikulua bat duzu. Hurrengo orrialdean 5 (6-10) galdera dituzu. Erantzun zuzena (a, b, c) aukeratu. 0 zenbakia adibidea da.

IBAI, “in memorian”

Datorren astean hamabost urte beteko dira, nire lehenengo umea, Ibai alegia, jaio zela. Jaio eta bi egun beranduago hil. Guruzetako ospitalean bertan hil zen, eta gurasook oraindik ez dakigu ondo zergatik gertatu zen heriotza hura. Argi daukagu ez zela inoren errua izan, baina orduan zientzia ez zegoen nahikoa aurreratuta goiz jaiotzen diren umeek zeuzkaten arnasketa arazoei aurre egiteko. Gogoratzen ditut medikuek eta erizainek egin zituzten ahalegin guztiak. Gogoratzen dut erizainak nola saiatzten ziren txandaka Ibairen biriketara airea eskuz ere erregularri sartzen. Berienganako esker oneko sentimendua baino ez daukat. Ahalegin guztiak ustelak izan ziren, ordea, eta hego haize zakarrak betiko eraman zuen arratsalde bero eta ilun hartako zazpiak aldera Ibairen bizia eta nire bihotzaren zati eder bat.

Egun ba omen dago horrelako arazoak dauzkaten umei laguntzeko bidea: odola atera eta makina baten bidez oxigenatu, umea bera horixe egiteko gai izan arte. Hori adibide bat baino ez da zientziak eta teknologiak nola egiten duten aurrera ikusteko. Hamabost urte hauetan asko aurreratu dugu, izugarri. Orduan imajinatu ere ezin genuena, dagoeneko egin ohi da gure ospitaleetan. Ibai hil zen garaian *Hiesa* izeneko gaitzak gogor jotzen zuen, eta guztiz hilkorra zen. Gaur egun, aldiz, *Hiesa* duten aitei hazia iragazten zaie, umeak, birusak kutsatu gabe, jaio ahal izateko. *Hiesarena* zientziak eta teknologiak egin duten aurrerapenaren adibide bat baino ez da, gainera zientziak aurkitutakoa ohiko teknologiarara nola pasatu den argi erakusten duena.

Seguru asko, eremu askotan dituen eraginengatik, medikuntza da ezagutzaren transferentzia azkarren egiten duen zientziaren arloa. Beste arlo askotan, aldiz, denbora luzea behar da, eta maiz ez da inoiz inora iristen, horrek ekar dezakeen galerarekin. Ondo dago ikertzea. Beharrezkoa da. Baina ikerketen helburua ezin da izan artikulua argitaratzea eta kongresuetan ponentziak aurkeztea soilik. Hori ondo dago, ezagutza, neurri batean gutxienez, zabaltzeko, baina ezin da hor geratu. Bestela, norberaren kurrikulua eta “ego”a puztzeko baino ez du balio. Puztu, gainera, zergak ordaintzen ditugunen bizkarretik, baina horiei bizkarra emanda. Areago, artikulua maiz oso antzekoak dira, berdinak ez esatearren, idazlea artikulitisa jota baitago. Horrek egilearen onerako baino, kalterako izan beharko luke. Artikulitisa kontrolatzeko auditoriak egon beharko liriteke, eta, noizean behin, gutxienez, ustekabeko auditoriak egin beharko lituzkete.

Ikertu, Euskal Herrian oraindik gutxi ikertzen da, eta maiz artikulitisa puztutakoa. Ondo jakin beharko genuke zer den gure benetako produkzioa, eta, gainera, bultzatu, eta, zergatik ez, saritu beharko liriteke, artikulua, ikerketa eta garapenaren arteko kate-maila baino ez dela uste duten ikertzaileak. Ikertzetik garatzera egin behar dugu, ahal den guztietan, bidea, eta, gainera, ahal den neurrian, era berritzaile batean, baina berrikuntza ez dadila artikulua batetik bestera doan gehikuntza txikia baino izan. Neu ere izan naiz joko horren parte, nire kurrikuluma eta “ego”a puztzeko. Behar nuela uste nuen, lehia handia baitzen.

Bidea ez da artikulitisa. Bidea beste bat da. Medikuntzan horretan geratu izan balira, gaur egun duela hamabost urte bezala egongo ginatke, eta oraindik Ibai bezala jaiotzen diren guztiak hilko liriteke. Zorionez, ez da horrela. Egun, Ibai jaioko balitz, aurrera ateratzeko askoz aukera gehiago lituzke. Eta hori ez da artikulua argitaratuz bakarrik lortu. Hori lortu da ikertuz, garatuz eta berrituz. Hortxe berriz egin beharrekoaren adibidea. Ibairen erraustak Aralarreko San Miguelen zabaldu genituen ekaineko haize eta lainoetara. Ez dezatela, bada, bide bera segitu egiten diren ikerketa askok eta askok. Gure ikerketak jaio eta erraustu baino, jaio eta bizia, bizi luzea, behar dute izan. Biziak salba ditzagun, gizarte gero eta hobe bat eraiki dezagun. Besarkada bat. Beti arte, Ibai.

GALDERAK

0. Zenbat denbora pasatu dira egileari semea hil zitzaionetik?
- Bi egun.
 - Datorren astean, hamabost urte.
 - Hamabost urte baino gehiago.
6. Ibai txikia jaiou, eta handik bi egunera hil egin zen.
- Gurutzetako ospitalean, beste batzuetan ez bezala, teknologia egokirik ez zutelako.
 - Orduan aurrerapen teknologikoa gaur egun bezain garatua ez zegoelako.
 - Osasun arloko langileen profesionaltasuna eskasa zelako.
7. Zer erakusten du *Hiesaren* adibideak?
- Aurrerapen zientifikoan atzeraka gabiltzala.
 - Hamabost urte hauetan zientzia arloan aurrerako bidea egin dugula.
 - Teknologiak ez duela zientziak adina aurrera egin.
8. Egileak haxe pentsatzen du ikerkuntzaz.
- Artikuluak argitaratze hutsetik baino harago joan behar duela.
 - Batez ere ikertzaileen kurrikulua eta "ego" a puzteko balio behar duela.
 - Izan beharko lukeen helburu bakarra artikuluak argitaratzea dela.
9. Artikulitisa.
- Ahalik eta artikulu gehien argitaratzea da.
 - Argitaratzen diren artikuluen edukiari arreta berezia jartzea da.
 - Artikuluak ikerkuntzatik garapenera doan urrats bat baino ez dela ohartzea da.
10. Idazkia irakurri eta gero, haxe ondorioztatu ahal dugu:
- Medikuntzan, beste zientzia arlo batzuetan ez bezala, azkar pasatzen da maila teorikotik praktikora.
 - Medikuntzan maila teorikoan bakarrik geratu izan balira, orain jende asko hilko litzateke artikulitisa jota.
 - Zientzian ez da beharrezkoa ikertzea, garatu eta berritzea baizik.

Galderak	0	6	7	8	9	10
Erantzunak	B					

HIRUGARREN ARIKETA. (5 puntu)

Testu honetan 5 hutsune daude. Zazpi aukera eskaini zaizkizu. Hutsune bakoitzari dagokiona aukeratu ondoren, osatu testua.

Orreagatik eta Sonportetik datozen Donejakue bideek Garesen egiten dute bat, eta Santiagoraino horrela jarraitzen dute. Donejakue bidearen berregituratzea XII. mendean eman zen. **(0)** Pirinioen alde bietako agintarien arteko harremanak nahiko adiskidetsuak ziren garai hartan eta Europa erditik zetorren jendeari -frankoak gehienak- erraztasun guztiak ematen zitzaizkion Nafarroako herrietan bizitzen jartzeko.

Donejakuerako bidean erromesek zailtasun handiak izaten zituzten ibaiak alde batetik bestera pasatzeko. Ibaian bi ertzeetan litxarrero ugari bildu ohi zen kanpotarrei txanponak kentzeko asmoarekin. Santxo Handiaren emazteak, Gares erromesen kokagune garrantzitsu bihurtzen ari zela ikustean, zubi bikain bat egitea erabaki zuen Arga ibaiaren gainean. XI. mendean, _____**(11)**_____ eta Gares, herriaren jatorrizko deitura, "Ponte Reginae" izenagatik aldatu zen.

Zubiak puntu erdiko sei arku ditu eta zutabeak zulatuta, egitura lirainagoa bihurtzeko. Bi ertzetan dorreak eta kateak omen zituen. Erdian altuagoa da _____**(12)**_____, eta gunee horri "lomo del asno" deitu ohi zaio. Garai batean Ama Birjinaren irudia zegoen zubi gainean eta txoritxo batek ibaitik hartutako urarekin garbitzen omen zion aurpegia.

Erromesek klase sozial berri bat osatu zuten Donejakue bideko herrietan. Nafarroako eta _____**(13)**_____ eta salerosketa eta artisautza-lanak erromesen eskuetan utzi zituzten.

Mota askotako jendea etorri ohi zen Europa erditik Santiagora: zaldunak, abenturazaleak, lapurrak, langile trebeak. Guztiak ziren jainkozaleak. Horietako batzuk herrietan geratzen ziren bizitzen, burguak osatuz. Erregeak eta eliz buruzagiak haietaz baliatzen ziren jauregietan eta elizetan zurgin eta hargin lanak burutzeko.

Bertakoek eta harresitik kanpo bizi ziren biztanleek ez zituzten eskubide berdinak. Banaketa urbanistikoak banaketa soziala ekarri zuen. Nafarroako erregeek lege bereziak egin zituzten Gares, Zangoza, Lizarra eta Iruñeko burguetan bizi ziren frankoentzat.

Arte erromanikoa

Arte erromanikoa nagusiki erromesen bidetara lotuta sortu zen. Mozarabeen eta bisigodoen liturgia zokoratu nahi zen eta Cluny monasteriotik zuzendutako erromatarra ezarri. Kristau erresumek beren gain hartu zuten ardura hori. Aymeric Picaud frantziar elizgizonak helburu horrekin osatu zuen "Codex Calixtinus" liburua. Hura izan zen _____**(14)**_____.

Garesen bi orden militar zeuden XI.-XII. mendeetan: Tenplarioak eta Jerusalemgo San Joanen jarraitzaileak. Tenplarioek Santa Maria de los Huertos eliza erromanikoa eta ondoko ostatua zuzentzen zituzten. XII. mendeko eraikin hau, harresitik kanpo eгина, berritua izan zen ondorengo mendeetan eta "Gurutzearena" _____**(15)**_____. Elizaren atal erromanikoa zisterreko estiloan gauzatuta dago. Sarrerako ate inguru ederra du, egun hezetasunagatik nahiko hondatua egon arren. Portadan arkibolta apuntatuak ditu eta pertsona burusoil, landare, hegazti, munstro eta maskorren irudiak nabari dira bertan.

HABE

AUKERATZEKO SINTAGMA EDO ESALDIAK:

- A. PIRINIOEN ALDE BIETAKO AGINTARIEN ARTEKO HARREMANAK NAHIKO ADISKIDETSUAK ZIREN GARAI HARTAN
- B. BI PORTADA ERROMANIKO DITU
- C. DONEJAKUE BIDEAN SANTIAGO ELIZA DAGO
- D. DONEJAKUE BIDEAREN LEHEN GIDA
- E. ERAIKIN HARK IZUGARRIZKO SONA IZAN ZUEN HERRITARREN ARTEAN
- F. ERTZEETAN BAINO
- G. GAZTELAKO NEKAZARIEK ASKI ZUTEN JAUNTXOEN LURRAK LANTZEAREKIN
- H. IZENA JARRI ZIOTEN

Hutsuneak	0	11	12	13	14	15
Erantzunak	A					